

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, funtsezkoak izango diren beste elkarte batzuekin elkarlanean arituko gara. Hauek planteatutako proiektu honetan oso rol garrantzitsua hartuko dute, zer esan handia. Are gehiago, esan dezakegu, hauek gabe ezinezkoa izango litzatekeela enpresa egi bihurtzea.

Hasteko, elkarlanean aritzea ezinbestekoa aurkituko dugun erakunde bat Uggasa da. Uggasak egin beharreko guztiak egiteko lokal bat ahalbidetuko digu. Lokal hau beharrezkoa izango da sukaldatzeko, tuperrak antolatzeko eta orokorrean dena gestionatzeko. Hemen



arituko gara langileok lanean, bakoitza bere eginbeharrak egiten. Uggasaren eskaintza hau ezinhobea dela iruditu zaigu; izan ere, wifiak, argindarrak, urak, eta gasak dakartzan kostuak hilerok ordaindu beharreko 90€ tarifa batean sartzen dira. Enpresa honek ahalbidetzen duen eskaintza hau gu bezalako ekintzaile berrientzako ideala da. Guk nahi ditugun xehetasunak kontuan izanik, interneten aurkitutako lokal bat alokatzeko izugarritzko dirutza izan beharko genuke.

Bigarrenik, gure erakundearen identitatea areagotzeko logo bat egingo dugu. Asko saltseatu ostean, logo hori egiteko aplikazio onena ClipStudio dela pentsatu dugu. Beraz, ClipStudioren laguntza ere izango dugu proiektuaren hasieran. Hau ez da doainik, baina ematen dizkigun herramienta guztiak funtsezkoak dirudizkigu. Gainera, doainik direnekin alderatu dugu, eta konparaziorik ez dagoela ohartu gara, ordaintzeak merezi duela.

Bestalde, denok dakigunez, publizitatea enpresa askoren giltza izaten da hura iskin guztietan entzuteko. Gu ez gara gutxiago izango, beraz, honi merezi duen garrantzia ematea erabaki dugu. Horretarako, inprenta batekin harremanetan jarriko gara. Inprenta hau guk diseinatutako eta eginiko kartelak inprimatzeaz arduratuko da. Sare sozialekin lotuta dauden publizitate motetaz berriz, gu geu arduratuko gara, ez dugu kanpoko enpresa baten beharrik izango.



Aipatzekoa izango da eroski, gure bezeroek erabilitako tuperrak utz ditzaketen puntua izango dena. Goierrri mailan mugituko garenez, gutxi gorabehera goierri hartzten dituen zona guztiak aztertu ditugu eta eroski ugari daudela ondorioztatu dugu. Hortaz, tuperrak uzteko puntu ideala dela dirudigu. Baina ez hori bakarrik, puntu gisa erabiltzeaz gain, hemengo produktuetaz baliatuko gara gure eskaintzetan.

Horrez gain, Eusko Jaularitzaren laguntza ere nabarmena izango da. Ekintzaile berriak garenez, eta askotan bidean oztopo ugari izaten ditugunez, hauekin kontaktuan jarriko gara eskaintzen dituen fiskalitate eta tributazio onura guztien berri eman diezaguten, izan ere, honek diru laguntza bat emango digu gure gastuak eta soldatak ordaintzea posible izan dadin.



“Bertatik bertara” izan da gure eginkizun honetan gehien lagundu digun enpresetako bat. Hau inguruko baserrietako produktuen ekoizpena eta tokiko kontsumoa sustatzeko lehen sektorearen estrategia propioa da. Baserritarren beharretatik abiatuta eta hauek lurraldearen bizi ekonomiko eta sozialaren parte izatea indartzen dituena. Modu honetan, Euskal baserriei lagunduz, gure kontsumitzaileek beraien produktuak gozatzeko aukera izango dute.

Azkenik, Urretxuko eta Zumarragako produktuak erabiliko ditugunez, beste hainbat elkartekin lotura estua izango dugu. Horietako bat izango da Agerre baserria, non mota guztietako esnea eta yogurra ekoizten duten. Intsausti harategiarekin ere elkarlanean arituko gara, hemengo haragi xamurra eskainiz. Elikagai osasuntsuetaz hitz egiten ari bagara, ezin zaigu fruta ahaztu eta horrexegatik eskeiniko ditugu Rueda fruta dendako fruitu-freskoak. Hori gutxi balitz, arraina ere beharko dugu eta non aurkituko dugu Izarra arraindegikoa baina freskoagoa den arrairik? Azkenik, Ametsa janari-dendarekin ere harremanetan jarriko gara, beharrezkoak izango zaizkigun produktuak ahalbidetuko dizkiguna.